

Ikusi, ikasi, entzun

Itziar Aduriz

Universitat de Barcelona

Laburpena

Ibon Sarasola irakasleak Bartzelonako Unibertsitatean izandako ibilbidearen historia dugu aztergai artikulu honetan. Bartzelonako Unibertsitateko Ibon irakaslea ezagutarazi nahi izan da. Horrekin lotuta, berak hainbeste maite duen hiri honetan, Bartzelonan, euskararen irakaskuntzak izan duen ibilbidearen historia ere egin da, unibertsitatekoa kokatze aldera. Urte mordoxka pasa ondoren, Sarasola irakasleak Bartzelonako Unibertsitatea utzi ondorengo egoeraren gorabeherak ere azaldu dira artikuluan, azken urteotan Estatu Espainiarrean unibertsitate mailan gertatutako hainbat aldaketaren isla izan direnak.

0. Sarrera

Nork ez du Ibon Sarasola ezagutzen? Berak nahi baino jende gehiagok, inondik ere. Ibon hiztegiilea, Ibon euskaltzaina, Ibon ingeniaria, Ibon irakaslea, Ibon ikerlaria, Ibon Orotariko eta Mitxelenarena, Ibon donostiarra, Ibon aita, laguna, ezaguna... Indar handikoak horiek denak. Behin ikusi eta ahazten ez zaizun horietakoa da, ez itxuraz, ezta hitz egiten ala barre egiten duenean ere.

Ondoren datozen lerroetan Ibon irakaslea izango dugu hizpide, Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea, hain zuzen. Egingo nuke goian aipatu ditudan horien guztien artean gutxiena ezagutzen dena hau dela. Eta berak hainbeste maite duen Bartzelona hiriarekin harremanetan jarriko dugu.

1. Historia pixka bat

Hamaika urte pasa zituen irakasle moduan Ibon Sarasolak Bartzelonako Unibertsitatean (Universitat de Barcelona katalanez, hemendik aurrera UB): hamar gehi bat, esan nahi dut, baita *hamaika* ‘asko’ ere. Zehatzago esateko, hamaika eta erdi, izan ere, epe luze honetako hasiera 1987koa da UBko paperen arabera, eta ni bere ordezkapena egiten 1999ko otsailean hasi nintzen.

Hamaika eta erdi gutxienez. Euskaltzaindiaren web orriko biografia kontsultatuta, aurretik (1976-1977 inguruan) beste bi urtez ere bertan irakasle moduan egon zela irakur baitaiteke.¹

Garai horretakoak ere badira Bartzelonako Unibertsitateko irakasle katedraduna den Sebastià Serranoren oroitzapenak. Oroitzapen hunkigarriak, Serranorenak. Politikoki garai korapilatsu haietan ere susmagarria baitzen euskalduna izatea, eta ondo gogoan du Serranok dei bat non gerta zitekeenaren arduradun egiten baitzuten Serrano bera, Ibon euskarazko eskolekin hasi behar zen garaian. Aurrera egin zuten, hala ere, eta eskola haiek eman egin ziren, Mitxelenaren itzal handia tarteko, nola ez!

Salamancaren ondoren Bartzelona izango genuke Espainia mailan euskararen unibertsitate mailako ikasketetan aitzindari. Aitzindari ez ezik, unibertsitate mailako euskara ikasketa eskaintza ugariena dagoen tokia ere bada, izan ere, UBz gain Universitat Autònoma de Barcelonan (UABn) ere badira Euskal Ikasketak 2000. urtetik aurrera.

Unibertsitatez kanpoko euskara ikasketak Bartzelona hirian, garai bertsan hasi ziren, 1979an hain zuzen, Nafarren Etxean. Urte hartan bertan Bartzelonako Euskal Etxea sortu zen eta han ere hasi ziren euskarazko eskolak ematen 1989ra arte. Urte horretan erakundeak ateak itxi zituen 1994ra arte. Ordutik eta gaur egunera arte etengabe egon dira euskarazko eskolak bertan.

Azkenik, Euskal Etxeaz gain, Bartzelonako Hizkuntz Eskola Ofizialean ere hartzen ahal dira euskarazko eskolak 1993tik.

Honen guztiaren laburpen ederra topa dezakegu Jon Elordi eta Aritz Galarragaren² aipamen honetan:

És també a Catalunya, on els estudis de llengua i literatura basques disposen de més centres d'ensenyament. Cada any, centenars d'estudiants es matriculen en estudis bascos a Barcelona: a la UB des de 1987, a l'Escola Oficial d'Idiomes des de 1993, a la UAB des de 2000. És també a Catalunya on hi ha el casal basc culturalment més actiu del món: l'Associació Cultural Euskal Etxea de Barcelona, que fa de plataforma de promoció cultural basca des de 1979. L'Euskal Etxea no només disposa de cursos d'ensenyament de la llengua basca, sinó que, dins de la seva àmplia programació cultural, ofereix un lloc especial a la difusió de la literatura basca. Així, des de l'any 2005, el festival Literàldia desplega una programació literària de tot un mes de duració i des de 2009 s'ha creat el club de lectura IK, un dels pocs,

¹ Eta akats bat ere ikusten ahal da. Testuko puntu batean hala dio: «1987-1998 artean Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Filologia Fakultatean eskolak eman eta Euskara katedra bete zuen». Ez zen, ordea, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan lanean egon, Bartzelonako Unibertsitatean baizik.

² Jon Elordi UABeko eta Euskal Etxeko irakaslea da. Aritz Galarraga, berriz, Etxepare Euskal Institutuko irakurlea da Bartzelonan, bai UABn bai UBn.

si no l'únic, que existeix fora del País Basc.³ A més, ha col·laborat en la publicació de les traduccions *Plouen mentides* (2005), *Som com moros dins la boira?* (2012) i *Orhipean. El país de la llengua basca* (2012). (Elordi eta Gallarraga, argitaratzeke).

2. Ikusi, ikasi eta ondo entzun

Puntu honen izenburuak dioen moduan, Ibon Sarasolari ikusi eta entzun nizkionetatik hasi nintzen ikasten UBn eskolak ematen eta hasi nintzen jabetzen hasierako hilabetetan eta ondorengo urteetan izango nituen erronken tainaz. Izan ere, ordezkatzera nindoanaren itzala handia baitzen.

Hala, Bartzelonara iritsi eta egun batzuetan egon ginen elkarrekin. Bera bere ohiko zereginetan eta ni ondoan zer eta nola egiten zuen gogoan gorde nahian. Gogoan geratu zaidan gauzarik garbiena da tokiaren beraren handitasuna: ikaragarria iruditu zitzaidan. Ikaragarria eta solemnea. Egia esan, UBko Filologia Fakultateko egoitza toki ederra da bisita egiteko ere. Eraikuntza historikoa da (ezizen horrekin ere ezagutzen da) eta Bartzelonako Diputazioak zaintzen duen lorategi bikaina du inguru guztian. Pasadizo luze haietatik barrena ibiltzen ginen atzera eta aurrera, korrika, imajinatuko duzuen bezala, eskaileretatik gora, *Pati de lletresetik* bigarren solairura, han baitzegoen bere bulegoa, frantseseko irakasle batzuekin konpartitzen zuena. Igogailu historikoa ere bazegoen (eta oraindik badago), egurrezko eserleku txikitxoak duten horietakoa, baina ez dut ikusi behin ere Ibon Sarasola igogailu hartan. Zertarako? Korrika ibiltzea gauza ederra baita, bere pausu luze bezain bizkorrez!

Eskolak ere gela historiko batean izaten ziren. 111. gela zuen kurtso hartan, *Pati de lletreseko* albo batean, aipatutako eskailera madarikatu horien parean. Gela hura ere historikoa zen, inondik ere. Maldan diren horietakoa baitzen, alde batetik bestera, ezker-eskuin zihoazen ohol luze eta estuek egiten zuten mahaien funtzioa eta mugitu ezin ziren egurrezko plataforma deserrosoek eserlekuena. Han jartzen nintzen eserita, nahiko aurrean, ikasgeletan aurrean beti tokia izaten delako eta ez nuelako inolako detailerik galdu nahi. Eta bere ordu eta erdiko eskola jarraitzen nuen, tentuz, ikusten, entzuten eta ikasten. Nirekin batera, ikasle mordoa, berrogeiren bat, gazteak eta ez hain gazteak, denak adi. Izan ere, Ibon Sarasolaren indarra eskoletan ere sumatzen zen. Autoritate handiz hitz egiten zuen. Kontzeptuak garbi azaltzen zituen eta ordainetan fundamentua eskatzen zuen: ikasleek etxerako agindutakoa ez bazuten egiten, ez zien aukerarik uzten parte hartzeko, denbora galtzea izango baitzen. Momentuan gogorra egiten zitzaidan baina ge-

³ «Perquè tothom hi pugui participar, s'utilitzen llibres que disposen de traducció al català o, si més no, al castellà.»

rorra ikusi dut arrazoiā ez zitzaiola falta! Baina ikasleek asko maite zuten. Oraindik gogoan dut nola batzuk etorri zitzaizkidan esanez agurra antolatu nahi ziotela eta zer egin zezaketen galdezka. Agurrik, ordea, ez zen egon, publikoa behintzat.

Askok ikasi nuen egun haietan.

2.1. Irakasgaiak

Euskal Ikasketak UBn beti kokatu izan dira Filologia Fakultatean, eta martxan zeuden hiru irakasgaiak, ni iritsi nintzen garai hartan behintzat, aukerakoak ziren edozein filologia ikasten ari zen edonorentzat baita aukera askekoak ere UBko beste edozein lizentziaturatako ikasleentzat.

Hiru irakasgaiak hizkuntzari buruzkoak ziren: bigarren hizkuntza gisa hartzen zena (*Basc com a segona llengua*), UBko Filologia Fakultatean zeuden beste hizkuntza guztien artean aukeratzeko. Eta horren ondorengo bi irakasgaiak: *Llengua Basca I* eta *II*. irakasgaiak bi ikasturte oso hartzen zituzten denera: bigarren hizkuntza ikasturte osokoa zen, 12 kreditutakoa, eta beste biak hurrengo kurtsoko lehen eta bigarren lauhilabetekotan ematen ziren, horietako bakoitza 6 kreditutako izanik. Guztira, beraz, 24 kreditutako aukera zegoen.

2.2. Ikasleak

Garai hartan eta ondorengo urteetan ere, hiru mailen artean ehun ikasle inguru egoten ziren. Ikasle gehienak sarrerako irakasgaien matrikulatzen ziren, bigarren hizkuntza delakoan. Izan ere, Filologiako ikasleek derrigorrez hautatu behar zuten bigarren hizkuntza eta beste hamar bat hizkuntzaren artean, euskara zegoen aukeran. Aukerako hizkuntzak estatukoak eta Europakoak ziren batez ere (eta gaur egun ere hala dira), adibidez, katalana, galegoa, portugesa, ingelesa, frantsesa, italiara, errusiera, poloniera, nederlandera, suediera, errumaniera, etab. Eta beste batzuk ere, hala nola, arabiera, hebreera, etab.

Irakasgai hauetan lantzen zena, batez ere, hizkuntza zen, eta horietako askotan literatura ere bai. Kontuan hartu behar da ikasle gehienak filologia-koak eta hizkuntzalaritzakoak zirela, nahiz eta beste edozein lizentziaturatik etor zitezkeen, gorago esan dudan bezala.

Ia denak ikasle katalanak ziren, hizkuntzaren ganako kuriositateak erakarrak. Batzuk, Bartzelonako irakaslearen artean esaten dugun moduan, *baskitiki* sak jota ala beren arbasoren bat euskalduna zelako.

Irakasgaiaren helburua hizkuntzaren oinarrizko nondik norakoak ezaugaraztea zen eta ikaslea testu txikiak eta errazak irakurtzeko gauza izatea. Hizkuntzaren irakaskuntzaren alde aktiboa albo batera uzten zen, ikasle ko-

puruagatik, eskolen dinamikagatik eta irakasgaiaren denbora-mugarengatik ere.

Baina batez ere, Iboni ikusi eta ikasi niona izan zen hizkuntzarenganako lilura nola transmititu. Eta transmisio egokiaren ondorioz, batzuetan miraria gertatzen zen, alegia, katalan euskaradunak sortzea. Ezagutu izan ditut horrelakoak, aipatu izan didatenak nola hasi ziren Ibonekin euskara maitatzen, eta nola jarraitu zuten beren kasa ikasten ala Bartzelonako Hizkuntz Eskolan, ala Euskal Etxean.

Harro egon zaitezke, Ibon Sarasola, mirariak ez bakarrik Lourdesen!

3. Ondorengoak

Ikusi, ikasi eta entzundako guztiekin ondorengo urteetan euskarak UBn zer garapen izan duen aipatuko dut orain.

Bigarren atalean azaldutako egoerak 2004ra arte iraun zuen. Ibonek utzitakoaren jarraipena izan zen urte hauetan, bai irakasgaietan bai bestelakoe-tan ere. Aldaketa bakarra gertatu zen maila administratiboan. Izan ere, Ibon UBn egon zen garaian euskarari buruzko irakasgaiak *Filologia Romànica* sail handiaren barruan zeuden. 2000. urtean gertatu zen haustura natural baten ondorioz, *Lingüística General* azpisaila *Filologia Romànicatik* atera, sail bihurtu zen eta euskarazko irakasgaiak sortu berri zen Hizkuntzalaritza Orokorreko sailari egokitu zitzaizkion, egokiagoa baitzen alderdi guztietatik begira. Tokiz ere aldatu ginen eta eraikuntza historikoan egotetik, bulego historiko, erraldoi eta sabai altuko horietako batetik, askoz ere aseptikoagoa zen ondo-ondoko eraikuntza batera pasa ginen, *Aribau* kaleko eraikuntza berrira, hain zuzen.

Zer gertatu zen 2004an gauzak aldatzeko? Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak irakurle-sarea martxan jartzeko oinarriak finkatu zituela urte hartan. Irakurle-sareak hizkuntz eremutik kanpoko unibertsitateetan euskara eta euskal kulturaren irakaskuntza bultzatu nahi zuen. Hala, 2005ean Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailarekin batera, UBn eta UABn lanean hasi ginen bi erakundeen arteko hitzarmenak idazten eta handik urtebetera sinatu ziren hitzarmenak. 2007an unibertsitate bakoitzean irakasle bana hasi zen lanean (irakasle horiei *irakurle* esan izan zaie). Bartzelona izan zen, beraz, lehenetarikoa irakurlea jartzen.

Aldaketa handia izan zen, egia esan, eta ordura arte UBn zegoen Euskal Ikasketen eskaintza handitzea ekarri zuen. Horrela, hizkuntzari buruzko hiru irakasgai izatetik, sei izatera pasa zen, bikoiztera alegia. Eta hizkuntza bakarrik irakastetik, euskal hizkuntzalaritza eta kultura irakastera pasa ginen. Horrezaz gain, asteen behin mintegi praktikoa ere martxan jarri genuen euskaraz solasteko eta eskoletan falta zen mintzamen-entzumeneko alderdi aktibo hori lantzeko. Ahalegin handia egin genuen garai hartan irakurle gisa sartu zen irakaslearekin, Iraia Yetanorekin. Hurrena etorri zen irakurlearekin, or-

dea, Ibai Atutxarekin, literaturari buruzko irakasgaia antolatu genuen eta euskal literatura irakasten hasi ginen. Berebiziko ahalegina egin zuten bi irakasle hauek hasieran eta eskerrak eman nahi dizkiet horregatik.

Sinatutako hitzarmenak errekonozimendua eta babes instituzionala emateaz gain eta Bartzelonako bi unibertsitate hauetan irakasle bana jartzeaz gain, irakasgaiekin lotutako jarduerak eta ekintzak egin ahal izateko dirua ere ematen zuen. Loraldi honetan bisita asko izan genituen UBn, batez ere literaturari buruzko irakasleak eta idazleak, hasi berri genuen irakasgaiarekin lotutako eskolak eta hitzaldiak ematera.⁴ Esan beharra daukat beti topatu izan dudala euskal komunitatean jarrera ezin hobea Bartzelonara etortzeko eta gure proiektuekin kolaboratzeko.

3.1. *Loraldiaren bukaera*

Edo nola desegin urtetan eta ahalegin handiz lortutakoa. Arrazoi bat baino gehiago dago.

Lehena, eta garrantzizkoena, Bolognako plan berriaren ezarpena izan zen. 2009-2010. urtean, hasi zen UBn plan berriaren ezarpena. Ez dut asmorik hemen xehetasun guztiak azaltzeko, baina filologiarik gabeko ikasketetarako oso kaltegarria izan zen.⁵ Kaltegarria baino gehiago, suntsitzailea izan dela esan dezaket. Lizentziaturetatik graduetara pasa ginen, eta euskarazko asig-naturak beste hizkuntzekin batera konpartitutako gradu handi baten barruan sartu ziren: *Grau de Llengües i Literatures Modernes* izenekoa. Hizkuntza batzuen artekoa denez, genituen irakasgai guztiak ez ziren sartu (denontzako to-kirik ez!) eta bakarrik oinarritzko hizkuntzari buruzko hiru irakasgaiak eta li-teraturakoa utzi zituzten. Ibonen garaira itzuli ginen berriz. Abantaila bakarra izan zen literaturakoa bi gradutan geratu zela, aipatu dudan handi horretan eta *Estudis Literaris* izenekoan. Beste guztiak desagertu ziren hasiera hasieratik: euskal hizkuntzalaritzari buruzkoa eta kulturari buruzkoa.⁶

⁴ Hitzaldi hauetako gehienak Bartzelonan euskara irakasten den beste erakundeekin batera antolatzen genituen, esfortzuak eta gastuak partekatuz. Hortik hasi zen gaur arte dirauen lau erakundeen arteko elkarlana (UAB, UB, Bartzelonako Euskal Etxea eta Bartzelonako Hizkuntz Eskola Ofiziala). Egiten dugun koordinazio lan handiaren ondorioz fruitu oparoak jaso ahal izan ditugu. Azkena, esate baterako, 2012an *Consorci de Biblioteques de Barcelona* izeneko liburutegi publikoaren sarearekin *Cultura Basca* arloa sortu ahal izan dugu, Biblioteca Esquerra de l'Eixample-Agustí Centelles liburutegian, HABEri eta Bartzelonako euskarako irakaslearen sare horri esker. Hitzarmena ere sinatu zen bi erakundeen artean.

⁵ UBn horrelako batzuk daude, *24 kreditutako hizkuntzak* ere deituak: euskara, nederlandera, grekomodernoak, suediera eta errumaniera.

⁶ Bolognako prozesua oso kaltegarria izan da, oro har, Estatu Espainiarrean euskara erakusten den beste unibertsitateetan ere, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, Madrilgo Unibertsitate Konplutensean eta baita Salamancakoan ere. Larria iruditzen zait niri eta nolabaiteko erreflexioa eskatzen duen puntua dela deritzot.

Aurten, gainera, planaren errebisioa tokatu da eta balorazioa egiteko ordua. Eta aurreikusten zen guztia bete da, nola ez ba? Euskarari buruzko irakasgaiak dauden toki eta testuinguru txarrean egonda (beste hainbat hizkuntzarekin gradua konpartituz, 24 kreditutako ikasketen egoera txarra, gure irakasgaiei bizia ematen zien hautazko izaeraren desagertzea, etab.) ikasle gutxi izan dituzte Bolognako egokitzapenaren ondoren. Horren ondorioz eta alderdi ilun honekin bukatzeko, 2014-2015 gauden kurtso honetan azken erabakia etorri zaigu eta jakinarazi zaigu UBko euskal ikasketen eskaintza hamabi kreditutara murriztu dela, bi irakasgaitara hain zuzen: *Introducci3 a la llengua basca* eta *Literatura basca*.

Bigarren arrazoia: krisia-edo. 2010ean Eusko Jaurlaritzako Etxepare Institutuak hartu zuen irakurle-sarearen ardura eta gure lehenengo irakurlea, erakunde honek gestionatua 2011koa da. Ekintzetarako (eta irakaslearentzako) diru-kopuruaren murrizketa ekarri zuen aldaketa honek. Izan ere, lau irakurle izatetik hogeita bost izatera pasa zen sarea, eta diruak ere denon artean modu orekatu batean partitu behar ziren. Baina gogorragoa gertatzeko zegoen eta krisi garai bete-betean (eta Eusko Jaurlaritzan krisiak eragindako diru-murrizketengatik) 2013an etorri zitzaigun ekintzetarako erabateko murrizketa, eta ondoren, aurten, Bartzelonako bi unibertsitatetan irakaslea konpartitu beharra, irakasgaien murrizketa dela-eta.

Eta horrela lotzen dira bi arrazoiak.

Gurpil zoroa.

4. Etorkizunekoak

Egoera *trixte* honen aurrean eutsi egin behar diogu eta iraun, pentsatuz garai hobek etorriko direla, gutxien espero genuenean txarrak etorri ziren bezala.

Bitartean irtenbideak bilatu behar dira eta horretarako, Euskal Ikasketak toki onean daudela esango nuke, Hizkuntzalaritza sailean, hain zuzen. Bertan ikuspegi akademiko zabala duten irakasle jator askoak daude pentsatzen dutenak euskarak toki hobea izan behar duela UBn, eta egokiera etortzen denean ahal duten guztia egingo dutela espero dut.

Hala, Hizkuntzalaritzako graduan euskara sartzeko intentzioa dago, hizkuntza ez-indoeuroparra den aldetik, ikasleentzat interes handikoa izango delakoan.

Bestetik, dekanotzan bazen plan bat estatuko hizkuntza guztiak eta beren literaturak bilduko zituen gradu bat ala gradu bateko ibilbidea ala aipamena sortzekoa, Iberiar Ikasketen inguruan.

Dena delakoa izango da, baina gu zutik eta adi harrapatuko gaitu.

5. Bukatzeko

Txosten itxurako artikulu honetan Ibon Sarasolak UBn izandako ibilbidearen berri eman nahi izan dut. Barkamena eskatu nahi diot Iboni berari daturen bat falta bada ala okerren bat baldin badago. Han eta hemen ibili naiz galdezka, baina beti ez da erraza izaten xehetasun guztiak kontrolatzea.

Ibilbide horretan, eta bere eskuzabaltasunari esker, bat egin genuen une batean. Ez dut hitzik nire esker ona adierazteko UBn lanean aritzeko aukera emateagatik eta badakit beti zorretan egongo naizela berarekin (goian azal dutakoak irakurrita penitentzia dela ematen du gustuko lana baino gehiago, baina ez, erronka ederra dugu aurrean gainditzeko!).

Honekin guztiarekin batera euskal ikasketek UBn izan duten ibilbidearen laburpena egin nahi izan dut lerrootan. Eta hori ere Iboni eskaintzen diot, askotan kontuonatik interesaturik egin izan didan galderari erantzun nahi izan diot.

Espero dut besteontzako ere interesgarria gertatu izana eta ez txokokeriaren kontakizuna. Izan ere, Euskal Ikasketak Euskal Herritik kanpo nola dauden denoi interesatu behar litzaiguke eta zaindu beharko genituzke, adibidez orain Estatu Espainiarrean Bologna dela eta, gure ikasketetan gertatzen ari dena saihesteko.

Gaizki esanak barkatu eta ongi esanak kontuan hartu.

6. Eskerrak ematen

Eskerrik asko nire lankide diren Jon Elordi eta Aritz Galarragari. Data eta datu batzuk helarazi dizkit lehenak eta azken orrazketan lagundu bigarreneak. Beti bezala laguntzeko prest.

Aipamenak

Elordi, Jon & Aritz Galarraga. (argitaratzeaz). «La Literatura Basca a les Terres del Català». *Revista de Catalunya*. Barcelona.